

{ datorrena } Iñaki SOTO

Gaurkotasun handiko irakurraldi berantiar bat

A spalditik nuen gogoia, eta bigarren argitaraldia aitzakia hartuta, orain irakurrit dut David Martin Sanchezen “El pueblo gitano en Euskal Herria” (Txalaparta). Bazen garaia. Liburua zorrotza da eta ondo idatzita dago. Ondorioz, erraz irakurtzen da eta intelektualki iradokitzailea da, baita historiografia gehiegi maite ez dugunontzat ere.

Lehenik, liburuak ikuspegi biktimista eta asistentziala nahiz fantasia erromantizatzailea ukatzen ditu. Abiapuntu zuzena iruditzen zait, pertsona pribilegiatuok periferiako arropak janzten ditugunean, enpatigatik baino gehiago edertzen gaituztelako, ikuspegi horiek erraz nagusitzen baitira.

Martinen genealogien azterketa interesgarria da, baita horietatik abiatuta euskal ijitoen leinuen bilakaerari buruz planteatzen dituen hipotesiak ere: abizena aldatu zuten –kasu batzuetan, justiziari iskin egiteko–, gizarte nagusiaren barruan desagertu ziren edo beste ijito familia batzuekin ezkondu zirenean desagertzen joan ziren. Jakina, hizkuntzen auziak ere azterketa sakonagoa merezi du. Ikerketa bat beste batzuei bidea irekitzen badie izaten da emankorra.

Ijito herriaren historia errepresioaren historia da, historian zehar mantentzen den jazarpen sistematikoarena. Euskal lurraldeetan Espetxeratze Orokorra edo ‘Rafflea’ nola gertatu zen jakitea garrantzitsua da. Errepresioan mugaren bi aldeetako agintarien artean eman zen lankidetzaz ez da harrigarria, noski.

Terminologiari eta kategoriei dagokienez, liburu oso zuzena da. Bada, ordea, bistatik galdu behar ez den zerbait: arrazakeria mota bat dago, fenomeno desberdinak biltzen dituena eta ‘ijitoen kontrakotasun’ gisa defini daitekeena. Eta ez du Ziburuko “gens

du voyage” delakoen eta Iruñeko Alde Zaharreko auzokide ijitoen artean alde nabarmenik egiten.

Edonola ere, interesgarria da ijito herriaren adarren arteko ezberdintasunak ulertzea, Ziburun eta Donibane Lohizunen kaskarotei buruz jakitea, ijitoen eta ijito ez direnen arteko harremanei buruz, edo beren abizeni eta ofizioei buruz irakurtzea...

Ikuspegi nazionalari eta lurraldetasunari jartzen dien arreta bihotzez eskertu behar zaio Martini. Beren mugikortasunerako joera kontuan hartuta, ezarritako mugen gainetik eta haien aurka diseinatutako legedien azpitik, euskal ijitoen lurralde naturala Euskal Herria eta bere zazpi herrialdeak izan direlako.

Egunerokotasunean, ijitoek bizitzarekin eta legearekin erakutsi duten ikuspuntuak gazte mugimenduan

Beren mugikortasunerako joera kontuan hartuta, ezarritako mugen gainetik eta haien aurka diseinatutako legedien azpitik, euskal ijitoen lurralde naturala Euskal Herria eta bere zazpi herrialdeak izan dira

«alegala» deitzen genuena gogorarazi dit. Legedia inguratzeko eta «gaizkia egiteko» adiera ia literario bat, sistemak egiten duen gaitzarekin alderatuta barregarria edo inozo samarra dena. Estatuaren erantzuna, ordea, ez da sekula inozoa izaten.

Liburua irakurrita, integrazio ala integrismoaren dilemaren aurrean, eta guretzat duen esanahi mugatzailea albo batera utzita, autonomia berrasmatzeko aukera ote dagoen pentsatu dut. Abertzaletasunak herriar guztiei egin behar dielako eskaintza politikoa. Baita gure artean bizi diren herri eta komunitateei ere; “betidanik” bizi direnei, eta etorriko direnei. •